



nekatur gara

*Konfiantza
ereiten dugu*



nekatur^g gara



*Euskadiko nekazatturismo
landa-etxe eta landa
apartamentuen jabeen elkarte*

Gure etxeko anfitrioiak,
gure hizkuntzaren zaindariak,
gure ohituren artzainak.

Gure tradizioak lantzen ditugu,
istorioen uzta biltzen dugu,
oroitzapenak kontserbatzen ditugu.
Gure nortasuna babesten dugu.

Bisitatzen gaituzten guztiek gure lurra den
Euskadi, guk bizi eta sentitzen dugun
moduan beraiek ere egitea nahi dugulako.

**Turisten bihotzetan hazten den hazia
landatzen dugu, gure lurrarekiko
maitasun bihur dadin.**





Egin bat konfiantzazko sare batekin

EUSKADIKO NEKAZALTURISMO, LANDA-ETXE ETA LANDA APARTAMENTUEN % 70 BAINO GEHIAGO BILTZEN DITUGU.

1

Zure eskubideak defendatzen ditugu

Kolektibo gisa jotzen dugu instituzioetara, zure ahotsa entzun dadin.



2

Araudia betetzen laguntzen dizugu

Aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen dizugu telefono bidezko arreta-zerbitzuaren bidez, eta informazio eguneratua eta sinplifikatua ematen dizugu.

3

Negozioa digitalizatzen dizugu

Gure kudeaketa-programa zurea bezalako ostatu txikiei egokituta dago.



4

Zure salmentak bultzatzen ditugu

Elkarteko kide diren ostatuen % 100 gure atarian eta erreserba-sisteman agertzen dira, eta 5 hizkuntzatan erabil daitezke biak.

5

Zure kostuak murrizten ditugu

Hornitzaile adituekin dauzkagun akordioei esker, dirua aurrezten lagunduko dizuten tarifa negoziatuak lortzen ditugu.





6

Zure bezeroen esperientzia aberasten dugu

Inguruko mapak eta esku-orriak jartzen ditugu zure eskura, bai eta bezeroentzako informazioa, proposamenak eta abantailak dituen webgune bat ere.

7

Onenekin trebatzen zaitugu

Zure negozioa haz dadin eta bezeroen beharrak aurreikus ditzazun.

8

Zure ateak mundu osora irekitzen ditugu

Tarifak eta bestelako abantailak negoziatzen ditugu turistak erakartzen dituzten Espainiako eta atzerriko bidaia-agentzia igorleekin.

9

Zure proiektuak sustatzen ditugu

Dirulaguntzen bidez finantzaketa lortzeko aholkuak emanda.

10

Euskal nortasuna babesten dugu

Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak babesteko egiten dugun lana errespetatzen eta balioesten duten turista arduratsuak erakartzen ahalegintzen gara, baserriko bizimodu tradizionala, gure kultura, gure hizkuntza eta gure tradizioak mantendu ahal izateko.

Zuretzako egiten dugu lan



Elkarteko kideen lekukotzak



Sergio Martínez de Rituerto **Izarrate Nekazalturismoa**

Bereziki eskertzen ditut aholkularitza-zerbitzua eta teknologia, erreserba- eta kudeaketa-programa, saltokiko terminala, bidaiari erregistroa, fakturazioa eta hirugarrenekin dituzten hitzarmenak.

Sonia Barrondo **Etxegorri Landa-Etxea**

Uste osoa dut asoziazionismoan; eman eta jasotzea oso aberasgarria da. Instituzioetako ordezkaritza ezinbestekoa da, eta elkarteko kideen arteko topaketak oso baliotsuak dira.



Lurdes Amundarain **Artizarra Nekazalturismoa**

Ekonomikoki oso interesgarria da, hirugarrenekin dituzten hitzarmenei esker dirua aurrezten dudalako. Aholkularitza-zerbitzua oso ona da. Edozein unetan dei dezakezu, eta laguntza eskaintzeaz gain, garaiz helarazten dizute informazio berria.



*Nekatur
gara*

Euskadiko landa-
turismoaren traktorea.

*Egin bat gurekin
eta landatu zure hazia*



nekatur

Zuatzu - Edificio PIA Eraikina

Juan Fermin Gilisagasti, 2 - Oficina 310 Bulegoa

20018 Donostia/San Sebastian

943 32 70 90

agroturismo@nekatur.net

www.nekatur.net